



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
27/07/2016

Reyes afea al PP por pedir que la Diputación se implique en la financiación del soterramiento del TAV en Bilbao

Las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado esta mañana en Gernika, por primera vez, un pleno de control en el mes de julio. La Diputación ha tenido que responder al final a un total de 13 asuntos entre interpelaciones y preguntas orales. En una de ellas el diputado de Transportes Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha dejado claro que la Diputación no se plantea apoyar financieramente la construcción de los accesos del TAV a Bilbao como le pedía el PP.

Reyes ha explicado que la Institución foral “no es competente” como no lo ha sido “ninguna” administración territorial o provincial en las inversiones que realiza el Estado en los accesos del AVE a las distintas capitales. La competencia foral se circunscribe al transporte público de Bizkaia, “para el que este año emplearemos 149,5 millones de euros, entre Metro y Bizkaibus”, ha recordado.

El responsable foral ha solicitado en el pleno al popular Jesús Isasi que elabore propuestas de interés para Bizkaia, “como pedir la transferencia de los trenes de cercanías, que están languideciendo” o la licitación del intercambiador de Urbinaga, “porque tampoco lo va a hacer este año” el Gobierno de Rajoy.

Por su parte, Isasi ha denunciado que el Gobierno foral ponga dinero en la Línea 3 del metro “cuando no es de su competencia”. “¿Ahí sí y ahora no?”, le ha espetado. El PP cree que es “importante que se colabore en el crecimiento de Bizkaia, que se atraiga inversión, que se ahorre combustible y contaminación, y que se malle el territorio”, en referencia a la participación de la Diputación en la construcción de los accesos del AVE a la capital vizcaína.

“Todos queremos que se desarrolle el territorio, pero esa no es la cuestión, sino quién paga cada cosa”, le ha respondido el diputado. “¿Quieren ustedes que se soterre la estación de Abando?”, le ha preguntado. Reyes cree que no, pues no es una cuestión que esté incluida en el plan actual de Fomento.

ACCIONES PARA LA JUVENTUD

A continuación, Podemos Bizkaia ha preguntado al Ejecutivo vizcaíno por las acciones concretas sobre las políticas integrales de juventud incluidas en el III Plan Joven de Euskadi 2020, algo que para el grupo morado es un asunto “de emergencia”. Las políticas de juventud deben servir para que los jóvenes “no se vayan de esta tierra”, ha señalado Asun Merinero.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El propio Diputado General, Unai Rementería, en su única intervención en la sesión, se ha referido a la aprobación "ayer" del plan Bizkaia Gaztedi 2020 en donde se establecen las políticas de juventud para los próximos ejercicios. Los jóvenes son "claves para el crecimiento de Bizkaia y con ellos hay que trabajar".

Entre los retos de este plan, Rementería ha citado "el empleo juvenil, la generación de talento, la igualdad de oportunidades, y la atención de personas en riesgo de exclusión social". Solo en el ejercicio 2015, la Diputación llevó a cabo "106 actuaciones" destinadas a la juventud, con una inversión de "61 millones de euros".

HUELGA EN LA TMB

El grupo morado se ha interesado también por la situación de la planta de Tratamiento Mecánico Biológico (TMB) de Arraiz y por cómo la Diputación "va a garantizar un servicio de calidad" mientras dure la huelga. La portavoz de este grupo, Neskutz Rodríguez, ha señalado que los trabajadores de la empresa adjudicataria están pidiendo condiciones "dignas" en estos "100 días" de paros.

La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha recordado, en su "tercera comparecencia" sobre este asunto, que el Plan Integral vigente señala el compromiso de la Diputación por cumplir las directrices europeas. Para ello, Bizkaia se ha dotado de "cuatro" infraestructuras: la TMB, la planta de compostaje, la planta de revalorización energética, y los vertederos de Artigas y Jata.

En cuanto a la huelga, Unzueta ha mostrado su "respeto" al derecho a la huelga y ha apelado a la "responsabilidad entre las partes -adjudicataria y trabajadores- para llegar a un acuerdo" y para que el plan integral pueda seguir ofreciendo un servicio de calidad. "Es un conflicto laboral e instamos a las partes a que se sienten y lleguen a un acuerdo", ha pedido.

Unzueta ha reconocido que la huelga "ha alterado el normal funcionamiento del plan de residuos", aunque Garbiker ha adecuado el mismo a la situación de paros que vive la TMB, derivando "desde abril al vertedero de Jata" las basuras; infraestructura que ha recibido "más residuos primarios y menos secundarios", según Unzueta. "Desgraciadamente", el plan de residuos se ve afectado por una situación "ajena" a la Diputación.

MESA DE DIÁLOGO CIVIL

A través de una Interpelación, EH Bildu quería conocer el papel que la Diputación concede a la Mesa de Diálogo Civil en la creación del Mapa de Servicios Sociales del Territorio. Podemos Bizkaia ha preguntado también por la "consolidación" de esta mesa



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

como punto de encuentro entre el Departamento de Acción Social y las organizaciones y redes del tercer sector.

La Diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha asegurado que la Diputación seguirá fomentando un “modelo mixto de colaboración público-privado” que ha obtenido resultados “excelentes”. El despliegue de la cartera de servicios sociales y prestaciones sociales de Euskadi “será objeto de debate” en este foro, “claro que sí”, aunque eso no quita para que haya “componentes de trabajo” que deben acotarse en el terreno interinstitucional, ha precisado.

ALONSOTEGI

Asimismo, EH Bildu ha preguntado por los pasos “legales y administrativos” que la Diputación va a adoptar por “irregularidades” detectadas en obras realizadas por el ayuntamiento de Alonsotegi en el año 2008, “no ejecutadas”, y que recibieron ayudas forales “de más de un millón de euros”, según ha señalado el juntero David Lopategi.

La diputada de Administraciones Públicas y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha explicado que la Diputación “no tiene constancia formal” de estos hechos. “A fecha de hoy no es parte” en ese proceso judicial abierto en los juzgados de Barakaldo, aunque ha advertido que eso no quiere decir que la Diputación no defienda sus intereses cuando se vea perjudicada.

La Diputación ofreció unas ayudas a Alonsotegi por los destrozos ocasionados por las lluvias en mayo de 2008, mediante una orden foral emitida en diciembre de ese mismo año. Según Bengoetxea, el Gobierno foral “ha cumplido todos los trámites” de ese expediente, “respetando la autonomía local y la normativa”. El expediente está “debidamente tramitado”. Y, en cuanto a la participación de la Diputación en el terreno judicial, ha afirmado que “no se tomarán decisiones sobre hechos no probados”.

TORRE DE MARTIARTU

En el capítulo de las preguntas orales, el PP ha preguntado por la participación de la Diputación en la rehabilitación de la torre de Martiartu (Erandio), “ejemplo” de casa torre, que es propiedad del ayuntamiento. El estado es “ruinoso” y requiere de una rehabilitación “urgente”, ha señalado el portavoz popular Javier Ruiz.

La diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha comunicado que “en este momento” la Diputación no tiene previsto “ninguna iniciativa en este ejercicio” en relación a este edificio. La titularidad es del ayuntamiento y este “tampoco ha previsto actuación alguna”, aunque no ha cerrado la puerta a que la Diputación “estudie”, en todo caso, una futura colaboración con el municipio si existiera algún proyecto “actualizado y definido” de rehabilitación.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

TRANSPARENCIA

En instancias del PP, Bengoetxea ha negado que la Diputación no haya ofrecido información sobre las empresas forales que le había solicitado el PP. La solicitud cursada por este grupo en relación a copias con datos de las plantillas de los entes forales y de otra información sobre Bilbao Air, ha suscitado dudas en este grupo sobre la “transparencia que predica” la Diputación.

La Diputación “siempre” ha garantizado el derecho a la información. Bengoetxea ha explicado que el propio portavoz del PP pudo ver “in situ los documentos que había pedido”. “Nadie le ha puesto ningún obstáculo para acceder a esa información” le ha contestado. En esta legislatura, los grupos junteros han realizado “672 peticiones de información y nos trae dos casos, lo que supone el 0,3%” de los requerimientos informativos. “Nos parece injusto que nos critique por falta de transparencia por ese porcentaje”.

En cuanto a la petición popular para conocer las facturas de Bilbao Air, Bengoetxea le ha contestado que esta entidad no es de la Diputación. “Somos un accionista minoritario en esa sociedad”, por lo que ha pedido que se dirija al consejo del ente promotor del aeropuerto de Loiu. En cuanto a la petición de información sobre las plantillas de las sociedades forales, la diputada foral se ha referido a que su Gobierno ha querido ser “cauto y precavido” con la información, porque “no nos parecía adecuado que los listados de las plantillas circulen sin control alguno”.

El portavoz popular ha señalado que la ciudadanía tiene “derecho” a recibir esa información”, ya que es un asunto “de interés ciudadano”. Ha denunciado que la Diputación “tenga miedo” al uso que se dé de esa información para después romper en el mismo atril la “advertencia legal” que dice le entregó la Institución foral en la que se previene al usuario de que se podrán adoptar medidas legales ante un mal uso de la información.

Bengoetxea ha lamentado que Ruiz quiera convertir “esta Cámara en un circo”. Le ha pedido que no hable de ocultación “porque es información que ha visto”. Ese escrito –la advertencia legal- “siempre se envía cuando hay información sensible. Se incorpora esa cláusula de legalidad, y se da a todo el mundo”. “Aunque le pese este gobierno es transparente y coherente”, ha concluido.

ESTANCIAS TEMPORALES EN RESIDENCIAS

El PP quería conocer si la Diputación tiene previsto incrementar las estancias temporales en residencias para personas mayores en la época estival. “Este hecho está incluido en la dinámica de centros”, ha contestado Sánchez Robles. En las residencias,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

se da prioridad a las situaciones de urgencia y a las de carácter previsible, “se responde con una prestación”. “Atenderemos todas aquellas solicitudes que cumplan los requisitos”, ha asegurado la diputada de Acción Social. En 2015, fueron “241 pagos” los efectuados.

En su turno de réplica, Eduardo Andres (PP) ha manifestado que “lo que no cuenta la diputada es que se da una prestación entre 400 y 800 euros al mes”, una diferencia “importante” con el coste medio de ser atendido en una plaza residencial que llega a los “2.160 euros”. “A muchos cuidadores no les soluciona el problema”.

FUTURO DEL KARPIN

El grupo morado ha incluido entre su batería de cuestiones el futuro del centro Karpin. Elena Unzueta ha dicho que “hoy por hoy la Diputación no puede hacer ningún planteamiento” de mejora como le pedía el apoderado Josean Elgezabal, porque son los municipios de Enkarterri como propietarios, a través de la Mancomunidad comarcal, “los que tienen que hacerlo”. De todas formas, existe una mesa en la que la Diputación “tomará parte” en el debate sobre el centro de animales.

ADAPTACIÓN TARIFARIA

Por su parte, EH Bildu se ha interesado por cuándo se producirá la “adaptación tarifaria” de la carreteras de peaje del territorio, en base a esa Norma Foral 3/2010, “que dice que todos los años se deben de llevar a cabo las adecuaciones de las tarifas”. El diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha contestado que éstas se adecuarán “a finales de año”.

21 NEGOCIOS CREADOS EN EL DURANGUESADO

Por su parte, el grupo juntero Socialistas Vascos ha pedido a la Diputación una valoración del finalizado Plan de Reactivación Comarcal de la Zona del Duranguesado, auspiciado por DEMA, que pretendía el impulso de la actividad laboral por cuenta propia, y que fue criticado por algunos grupos de la oposición, según Alexia Castelo, por no abrirse a la participación de los ayuntamientos.

La Diputada de Empleo, Teresa Laespada, ha explicado que el plan de reactivación comarcal, que nace en la Margen Izquierda en el año 2013, “ha cumplido y superado” los objetivos marcados en el Duranguesado. Han participado en él “29 personas”, que han creado “21 negocios” de “diversidad enorme” en la comarca, lo que representa una inserción laboral del “72%”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

AYUDAS PARA ADAPTAR PLANES URBANÍSTICOS

El diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha informado que la Diputación ofreció “628.000 euros” en 2015 a los ayuntamientos “de menos de 7.000 habitantes” en concepto de ayudas para adaptar el planeamiento urbanístico, con una “cantidad máxima de 30.000 euros”. EH Bildu cree que estas ayudas “no son suficientes” y Reyes ha criticado que la coalición abertzale mientras gobernó en Gipuzkoa, no ofreció “ninguna” ayuda de este tipo.

UN MILLÓN PARA MUNICIPIOS EN DIFICULTADES ECONÓMICAS

Ibone Bengoetxea ha contestado a EH Bildu que el Decreto Foral que regulará las ayudas a municipios en dificultades financieras dotado con “un millón de euros”, será publicado “después del verano”. La responsable foral ha indicado que se está elaborando el documento “en estos momentos” y que para acertar con su redacción la Diputación quiere tener la “maxima información posible”. Falta todavía, según ella, información de 2015 de “algunos ayuntamientos”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
2016/07/27

AHT Bilbon lur azpian sartzeko lanen finantzaketan Aldundiak parte hartzeko eskatuz erakutsi dauen jarrerea aurpegiratu deutso Reyesek PP taldeari

Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur goizean izan dabe Gernikan garagarrilean egin dan kontroleko lehenengo osokoa. Aldundiak 13 gai erantzun behar izan ditu guztira, Itauen eta ahozko erantzun-eskeen artean. Horreetako batean, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako diputatuak argi eta garbi itzi dau Aldundiak ez dauela parte hartuko AHTk Bilbok izango dituan sarbideen finantzaketan, PP taldeak eskatu deusan moduan.

Reyesek azaldu dauenez, Foru Erakundeak “ez dauka eskumenik”, AVE trenak Espainiako uriburuetan izango dituan sarbideetan Estaduak egiten dituan inbertsinoetan lurralde edo probintzia mailako “ezein” administrazinogaz gertatzen dan moduan. Aldundiaren eskumena Bizkaiko garraio publikora mugatzen da, “eta aurton 149,5 milioi bideratuko doguz horretara, Metroaren eta Bizkaibusen artean”, gogoratu dau.

Aldundiko arduradunak, Bizkairako interesgarriak izan daitekezan proposamenak egiteko eskatu deutso Osoko bilkuran Jesús Isasi popularrari, “gero eta egoera txarragoan dagozan aldirietako trenen transferentzia eskatzea” edo Urbinagako trukagunearen lizitazioa, adibidez, “aurton be Rajoyren Gobernuak ez dauelako holangorik egingo”.

Isasik, bere aldetik, Foru Gobernuak Metroaren 3. linean dirua jarrea salatu dau “hori be bere eskumenen barruan ez dagon arren”. “Hor bai eta hemen ez?”, galdetu deutso. PP taldearen eretxiz “garrantzitsua da Bizkaiaren hazkundean laguntzea, inbertsinoa erakartea, erregaietan eta kutsaduran aurrezte eta lurraldea egituratzea”.

“Danok gura dogu lurraldea garatzea, baina ez da hori kontua, gauza bakotxa nork ordaintzen dauen baino”, erantzun deutso diputatuak. “Abandoko geltokia lur azpian sartzeko gura dozue?”, galdetu deutso. Reyesek ezetz uste dau, gai hori ez dalako une honetan indarrean dagon Sustapen Ministerioko planean jasoten.

GAZTERIARI ZUZENDUTAKO EKINTZAK

Horren ostean, Podemos Bizkaia taldeak, III. Gaztedi Plana Euskadi 2020 Esparruaren barruan dagozan gazteriari buruzko politika integralen ekintzen gainean galdetu deutso Bizkaiko Aldundiari. Talde morearentzat “preminazko” gaia da. Gazteriari buruzko politikek gazteak “lur honetatik ez joatea” lortu behar dabe, Asun Merinerok esan dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak berak, saioan izan dauen esku-hartze bakarrean, Bizkaia Gaztedi 2020 plana “atzo” onartu zala aitatu dau. Plan horretan ezarten dira hurrengo ekitaldietarako gazteria arloko politikak. Gazteak “ezinbestekoak dira Bizkaiaren hazkunderako, eta eurakaz egin behar da lan”. Aldundiko arduradun nagusiak adierazo dauenez, bere Gobernuak beste administrazio batzuek konpartidu ditu esfortzuak.

Plan horrek batzen dituan erronken artean, Rementeriak “gazteen enplegua, talentuaren sorrerea, aukera bardintasuna eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dagozan pertsonen arretea” aitatu ditu. 2015eko ekitaldian bakarrik, Aldundiak “106 jarduketa” gauzatu ebazan, “61 milioi euroko” inbertsinoagaz.

TMB-KO GREBEA

Talde Moreak, Arraizko Tratamendutegi Mekaniko Biologikoko (TMB) plantaren egoeraren aurreko interesa be erakutsi dau, eta grebak irauten dauen bitartean “kalidadezko zerbitzu publikoa bermatzeko Aldundiak jarriko dituan neurrien” gainean galdetu dau. Neskutz Rodríguez talde horretako bozeroaleak adierazo dauenez, beharginak baldintza “duinak” ari dira eskatzen “100 greba egun” horreetan.

Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak, gai horren inguruan egiten dauen “hirugarren agerraldian” gogoratu dauenez, une honetan indarrean dagon Plan Integralak Foru Aldundiak Europako arteztarauak beteteko dauen konpromisoa adierazoten dau. Horretarako, Bizkaiak “lau” azpiegitura ditu: TMB, Konpostatze planteak, Energiaren Birbalorizazinarako planteak, eta Artigaseko eta Jatako hondakindegia.

Grebeari jagokonez, Unzuetak bere “errespetua” erakutsi dau greba eskubidearen aurrean, eta “aldean –esleipena dauen enpresea eta beharginak– arteko erantzukizuna” eskatu dau, “akordioa lortu ahal izateko” eta plan integralak kalidadezko zerbitzua eskaintzen jarraitu ahal daian. “Lan arloko gatazka da, eta eskaria egiten deutsegu aldeei, jesarri eta akordioa lortu deien”, adierazo dau.

Unzuetak autortu dauenez, grebak “hondakinen planaren ohiko funtzionamendua aldatu dau”, baina Garbikerrek egokitu egin dau hori, TMBko geldialdi egoerea kontuan izanda, “apiriletik Jatako hondakindegira” deribatuz zaborrak; azpiegitura horrek “lehen mailako hondakin gehiago eta bigarren mailako gitxiago” jaso ditu, Unzuetak esan dauenez. “Zoritxarrez”, hondakinen plana, Aldunditik “kanpoko” egoera baten eragina ari da jasaten.

ALKARRIZKETA ZIBILERAKO MAHAIA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Itaunen arloa EH Bildu taldeak itxi dau. Talde abertzaleak, Lurraldeko Gizarte Zerbitzuen Mapea osatzean Aldundiak Alkarrizketa Zibilerako Mahaiari emoten deutsan eginkizuna zein dan jakin gura izan dau. Podemos Bizkaia taldeak mahai horren “finkapenaren” gainean galdetu dau, Gizarte Ekintzako Sailaren eta hirugarren sektoreko erakundeen eta sareen arteko topalekua izan behar dala azpimarratuz.

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatu andreak esan dauenez, Aldundiak aurrera jarraituko dau “lankidetzaren publiko-pribadu eredu mistoa” sustetan, emon dituan emaitzak “bikainak” izan diralako. Euskadiko gizarte zerbitzuen eta gizarte arloko prestazinoen hedapena foro horretan “eztabaidatuko da”, “jakina baietz”, baina horrek ez dau esan gura erakundeen arteko arlori mugatu beharko diran “laneko osagairik” ez dagonik, zehaztu dau.

ALONSOTEGI

Horrez gain, EH Bilduk, Alonsotegiko Udalak 2008an egin behar ebazan baina azkenean “gauzatu ez ziran” obratan agertu diran “irregulartasunen” aurrean Aldundiak “legezko eta administrazinoko” ze neurri hartu behar dituan galdetu dau. Lan horreek “milioi eurotik gorako” foru laguntzak jaso ebazan, David Lopategi batzarkideak adierazo dauenez.

Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak azaldu dauenez, Aldundiak ez dauka gertakari horreen “konstantzia formalik”. “Gaur egun ez da parte” Barakaldoko epaitegietan zabalik dagon prozesu judizial horretan. Dana dala, argi itzi gura izan dau horrek ez dauela esan gura Aldundiak ez dituanik bere interesak defendiduko bere burua kaltetuta ikusten dauenean.

Aldundiak laguntza batzuk emon eutsazan Alonsotegiri 2008ko maiatzeko euriteek eragindako kalte larriak zirala eta, urte horretako abenduan emon zan foru agindu baten bitartez. Bengoetxeak esan dauenez, Aldundiko Gobernuak espediente horretako “izapide guztiak bete ditu”, “tokiko autonomia eta arautegia errespetatuz”. Espedientea behar dan moduan izapidetuta dago”. Eta, Aldundiak arlo judizialean izan behar dauen partaidetzari jagokonez, “frogatu bako gertakarien gainean ez dala erabagirik hartuko” azpimarratu dau.

MARTIARTUKO TORREA

Ahozko erantzun-eskeen arloan, PP taldeak Martiartuko torrea (Erandio) bereoneratzeko beharretan Aldundiak daukan partaidetzearen gainean galdetu dau. Torretxearen “eredua” dan horren jaubea Udala da. Egoerea “aurrizkoa” da, eta behar beharrezkoa da “preminaz” bereoneratzea, Javier Ruiz bozeroale popularrak adierazo dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatuak esan dauenez, “une honetan” Aldundiak ez dauka aurreikusita eraikin horregaz erlazionautako “ezelango ekimenik ekitaldi honetan”. Titulartasuna Udalarena da, eta Udalak be ez dau ezelango jarduketarik aurreikusi. Dana dala, ez dau baztertu, bereoneratzeko proiektu “eguneratua eta definidua” egon ezkerro Aldundiak udalerriaz modu bateko edo besteko lankidetzeari “aztertzerik”.

GARDENTASUNA

PP taldeak egin dauen Itaun batean, Bengoetxeak guzurtau egin dau Aldundia tokiko erakundeen gaineko informazio-eskaeren kopiak emotearen kontra agertu danik, PPK eskatu dituanen. PPK eskatuta foru erakundeen lantaldeen gaineko datuak eta Bilbao Air erakundearen gaineko informazioa jasoten daben kopien eskaerak zalantzak eragin ditu talde horretan “behin eta barriro gardentasuna aldarrikatzen dalako”.

Aldundiak “beti” bermatu dau informaziorako eskubidea. Bengoetxeak azaldu dauenez, PP taldeko bozeroaleak berak “in situ, lekuan bertan, ikusi ahal izan ebazan eskatutako dokumentuak”. “Inork ez dau ezelango trabarik jarri informazio hori eskuratzeko”, erantzun deutso. Legealdi honetan, batzarretako taldeek “672 informazio eskari egin ditue, eta orain kasu bi jarten dira mahai gainean, hau da, guztien arteko %0,3a”. “Uste dogu ez dala zuzena gardentasun faltarengaitik kritiketea ehuneko hori ikusita”.

Talde popularrak Bilbao Airren fakturak ezagutzeko egin dauen eskaria dala eta, erakunde hori ez dagoala Aldundiaren esku erantzun deutso Bengoetxeak. “Soziedade horretako gitxiengoko akziodunak gara”, esan dau. Hori dala eta, Loiuko aireportua sustetan dauen erakundeko kontseilura zuzentzea eskatu deutso.

Foru soziedadeen lantaldeen gaineko datuei buruzko informazio eskariari jagokonez, Bengoetxeak esan dau bere Gobernuak “kontuz” ibili gura izan dauela informazioagaz, “gure eretxiz ez dalako egokia izenak eta abizenak hortik zehar ibiltea”.

Bozeramale popularrak herritarrek informazio hori jasoteko “eskubidea” dabela esan dau, “herritarren intereseko” gaia dalako. Salatu egin dau Aldundiak informazio horri emon ahal jakon erabileraren aurrean “bildurra izatea”, eta atrilean bertan apurtu dau bere esanetan Foru Aldundiak emon eutsan “legezko ohartarazpena”. Ohartarazpen horretan, informazioaren erabilera desegokia gertatu ezkerro legezko neurriak hartu daitezkezala jakinarazoten jako erabiltzaileari.

Bengoetxeak esan dau penagarria dala Ruizek “Batzar honek zirku bilakatu gura izatea”. Ez daiala ezkututzeaz berbarik egin eskatu deutso, “berak ikusi dauen informazioaren gainean berbetan dabilelako”. Idazki hori –legezko ohartarazpena– beti bialtzen da, kontuz erabili beharreko informazioa dagonean. Legezkotasunaren gaineko klausula hori sartzen da eta jende guztiari emoten jako”. “Zuk bestelakorik



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

gurago izango zenduan arren, gobernu hau gardena eta koherentea da”, esan dau bukatzeko.

ALDI BATERAKO EGOTALDIAK EGOITZETAN

PP taldeak, pertsona nagusientzako egoitzetan udan aldi baterako egotaldiak egiteko aukeren gainean galdetu dau. “Hori zentroen dinamikaren barruan dago”, erantzun deutso Sánchez Roblesek. Egoitzetan lehentasuna emoten jake preminazko egoerei eta aurreikusita dagozanei, “prestazino bategaz erantzuten da”. “Eskakizunak beteten dituen eskari guztiei erantzungo deutsegu”, baieztu dau Gizarte Ekintzako diputatuak. 2015ean “241 ordainketa” izan ziran egin ziranak.

Erantzuteko txandan, Eduardo Andresek (PP) esan dauenez, “diputatuak esaten ez dauena hilean 400 eta 800 euro arteko prestazinoa emoten dala da”, alde “garrantzitsua”, “2.160 eurora” heltzen dan egoitzako plaza batek balio dauen batez besteko kostuagaz alderatzen badogu. “Zaintzaile askori ez deutse arazoa konpontzen”.

EL KARPINEN ETORKIZUNA

Bere erantzun-eskeen artean, talde moreak El Karpin zentroaren etorkizuna planteau dau. Elena Unzuetak esan dauenez, “gaur egun Aldundiak ezin dau ezelango hobekuntzarako planteamendurik egin”, Josean Elgezabal batzarkideak planteau dauen moduan, Enkarterriko udalerrriak diralako jaubeak, eta eurak diralako, Eskualdeko Mankomunidadearen bitartez “hori egin behar dabenak”. Dana dala, badago mahai bat, eta Aldundiak “parte hartuko dau” animalien zentro horren etorkizunaren gaineko saioetan.

TARIFEN EGOKITZAPENA

EH Bilduk, bere aldetik lurraldean ordaindu behar diran errepideen “tarifen egokitzapena” noiz gertatuko dan jakin gura izan dau, “urtero tarifen egokitzapenak egin behar dirala esaten dauen” 3/2010 Foru Arau hori kontuan izanda. Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko diputatuak erantzun dauenez, tarifak “urtearen bukaeran” egokituko dira.

21 NEGOZIO SORTU DIRA DURANGALDEAN

Batzarretako Euskal Sozialistak taldeak, bere aldetik, daborduko amaitu dan eta DEMAk bultzatu dauen Durangaldeko Eskualdea Berbizteko Planaren balorazinoa eskatuko deutso Aldundiari. Plan horren bitartez norberaren kontura sortutako lan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

jarduera bultzatu gura zan, eta oposizino talde batzuek kritikau egin eben, Alexia Castelok esan dauenez, Udalen partaidetzarako ez zabaltzarren.

Teresa Laespada Enplegu diputatuak esan dauenez, 2013an Ezkerraldean sortu zan Eskualdea Berbizteko Plan harek, “bete eta gainditu egin ditu” Durangaldean markautako helburuak. Plan horretan “29 pertsonak” hartu dabe parte, eta “oso aniztasun handiko” “21 negozio” sortu ditue eskualdean. Hau da, planak “%72ko” laneratzea lortu dau.

URIGINTZA PLANAK EGOKITZEKO LAGUNTZAK

Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako diputatuak jakinarazo dauenez, Aldundiak “628.000 euro” eskini eutsezan 2015ean “7.000 biztanletik beherako” Udalei, urigintza planeamendua egokitzeko laguntza moduan, “bakotxari 30.000 euro, gehienez be”. EH Bilduren eretxiz laguntza horreek “ez dira nahikoa”. Reyesek erantzun dauenez, koalizino abertzalea gobernuan egon zan urteetan Gipuzkoak ez eban holango “bape” laguntzarik emon.

MILIOI BAT GAIZTASUN EKONOMIKOAK DITUEN UDALERRIENTZAT

Ibone Bengoetxeak EH Bilduri erantzun deutzenez, finantza arloan gaiztasun handiak dabezan udalentsako diru-laguntzak araupetuko dituan Foru Dekretua, “milioi bat euro” izango dituana, “uda ostean” argitaratuko da. Aldundiko arduradunak esan dauenez, “une honetan” dokumentua egiten ari da, eta idazteko orduan ahalik eta egokiena izan daiten, Aldundiak “ahalik eta informazino gehien” euki gura dau. Diputatuaren berbetan, “udal batzuen” 2015eko informazinoa falta da oraindino.